

EZIN IHESI

1.

IMANOLek eta **DANI**k ez dute elkar ikusi batxilergoan ikaskide izan zirenetik. 35 urte dituzten honetan, hipermerkatu baten barruan topo egiten dute. **DANI**, galtza bakeroak jantzita, itxura arrunta, lapurretan dabil. **IMANOL**ek erosketa orga edo karroa gainezka darama, apenas bultza ezinda dabil. Korbata eta trajea jantzita.

*Txerrikien hozkailuaren parean, **DANI**k plastikoan ontziratutako York urdai-azpikoa, sabelean, jertsearen azpian, sartu du.*

IMANOL: *(bere buruari)*Ahotik pasa gabe, zuzenean sabelera.

DANIri urdai-azpiko enbasatuak irrist egiten dio jertsearen azpitik eta lurrera erortzen zaio.

IMANOL: *(ezagutuz)***DANI**!

DANI: *(disimuluan, urdai-azpikoa lurretik bizkor jaso eta hozkailura bueltatu ondoren)* Noor?

IMANOL: Aspaldiko, Dani!... Daniel Amondarain zara, Kostako Institutuan gela berean izan ginen... Bai, klasean ere gorraren plantak egiten zenituen beti.

DANI: Zuk, orain, itsuarena egin, mesedez. Ez nauzu ikusi. Agur, **IMANOL** Velez de Uriguen. Agur.

IMANOLek karrotik pertxa bat hartu eta jertsearen lepotik heltzen dio, geldiarazteko.

IMANOL: Kamarak dira txibatoak, ez ni! Nik ez zaitut salatuko, zaude lasai, Dani.

DANI: *(hustuz, barrezka)* Hemengo kamarak kadukatuak daude...

IMANOL: Zer esan nahi duzu?

DANI: Zergatik uste duzu ausartu naizela? Oso kamara gutxik funtzionatzen dute. Altzarietakoak eta jostailuetakoak, kamara horiek guztiz itsuak daude! Gazta eta txokolateen pasillokoak ordea, berriak dira! Distiratsu ikusten dira kesitos kaxak! Eta bonboienak! Eskua gainean jartzen diezunean, zer esanik ez.

Kameraren atzean dudan esperientziagatik diot.

IMANOL: *(hozkailetatik Danik lagatako York urdai-azpikoa hartu eta erosketen karroan sartzen du)* Zinema-zuzendaria al zara? Esan nahi dut, zinema-zuzendari... Kleptomanoa?...

DANI: Aizu, karroa beteta daramazulako, ez zaude ni baino sanoago, e?!... Begira, hemengo langilea izan naiz 16 urte luzetan. FP bukatu eta perfumeriako apalak betetzen hasi nintzenetik. Desodoranteak, txanpuak, en fin. Hemengo bazter guztiak ezagutzen ditut...

IMANOL: *(moztu egiten dio)* Gogoratzen dut, bai. FPra joan zinen batxilergoa bukatu gabe. Nik ikasten jarraitu nuen.

DANIK IMANOL en karrotik yogur likido botila bat hartzen du. Ireki eta edaten hasten da.

DANI: Unibertsitateko titulua lortu zenuen, orduan? Zuk? Zero-en taldekoa zinen eta!

IMANOL: Enpresarialesen ia zazpi urte eman nituen, hobe esanda, denborapasarialesen. Zeren, azken finean, hortan ibili nintzen, denbora pasan. Nik ez bainuen tituluaren premiarik... Aitonaren galtzerdi-fabrikako burua naiz, azkenean!

DANI: Orduan, zure aita hil da...

IMANOL: Goian Bego!

DANI: *(yogur botila hutsa karrora bueltatuz)* Sentitzen dut. Oso ona zen.

IMANOL: Oso ona. Beste zazpi botila dauzkat. Melokotoiezko zaporekoa atera berri dute, izugarria. *(isilunea)* Tira, urdaiazpikoa neuk ordainduko dizut, gure aspaldiko adiskedatasunaren izenean.

DANI: *(harro, haserretuz)* Ez dut zure gonbitearen beharrik! Ez nago kale gorrian! Zenbaki gorrietan baizik, ulertzen? Sekulako negozio puska hasteko sekulako mailegua eskatu behar izan dut. *(ahotsa erabat jaitsiz)* Besterik ez.

IMANOL: Orain ulertzen dut zure kleptomania *(Harroago)* Aizu, urdaizpiko horrek bi bokata egiteko adina besterik ez dizu ematen eta kontuan izanda hilaren haseran gaudela, txorixo osoa erosiko dizut.

DANI: Panplona edo lomo? *(aldatuz, berriro harro)* Ez dut zure limosnarik behar *(bere baitan)* Akaso oilasko bat...

(*atzera harrotuz*)Tira, ni neu, alarma-likido baten asmatzailea naiz, Imanol. Patentatu nahi dut. Eta bizitzan badakit nola edo hala aurrera egiten. Hipermerkatu hau izan da nire eskola!

IMANOL: (*txorixo osoa sartu karroan*) Nire leku kuttuna da hiper hau. Karroa bete-bete eginda eramaten dudanean munduko erregea sentitzen naiz. Eta txartelarekin ordaintzerakoan, sinadura eskatzen didatenean, kutxakoa nire FANSA dela pentsatzen dut, edota kodea sartzen dudanean, inportantea sentitzen naiz.

DANI: Dirua barra-barra gastatzea duzu gustuko...

IMANOL: Plazer handia da dirua nonahi xahutzea. Gainera, etxean aspertu egiten naiz...

DANI: (*oso serio, lehian*)Enpresari arrakastatsua izateko bidean naiz ni, ez pentsa. Laster, nire leku kuttuna kaleko bankuak izango dira.

IMANOL: Eskaleen bizilekuak?

DANI: Kaleko bankuan eserita egongo naiz, deus egin gabe, BeBeUveAn eta horrelakoetan dirua eta dirua daukadala. Nahi adina txerri erosteko gai izango naiz. Txerriak oso osorik. Eta ni eguzkiari begira, eguzkitako garestiak jantzita.

IMANOL: (*aitortuz,bihotzez*)Fabrikak sekulako buruhaustea sortzen dizkit. Enpresariaren bizitza, ez dizut gomendatzen... (*aldatuz*) Orduan, zu, non zabilta lanean?

Ordaintzeko kutxara iritxi dira. Imanolek Daniri txorixoa ematen dio.

DANI: Ez didazu ulertu, enpresa bat sortu berri dut, bulego baten bila nabil... Milesker txorixoagatik. Igual iguala zaude, Imanol, guapo guapo.

IMANOL: Zuk uste? Milesker, zu ere... Igual iguala.

DANI hipermerkatutik irten egiten da.

-Hipermerkatuko aparkalekuan. Ilunpetan.

IMANOL: (*txokolatzeko tableta bati SARIAREN ikurra kendu ondoren*)

Lau behi-zintzarri jarraian tokatu zaizkit! Beste lau falta zaizkit zerealen katilu morea lortzeko!

2.

Hipermerkatu barruan, **DANI** produktuak saltzeko stand baten atzean dago. **STAND**aren izena: **ALI, ALARMA LIKIDOA**. Mahaiaren gainean likido horiz betetako botila txiki batzuk daude. Eta pintzelak. **DANIK** korbata merkea darama jantzita elastiko baten gainean.

DANI: Iuuuu, iuuuuuu! Alarma likidoa! Alarma bat, bi funtzio! Lapurrentzat eta txintxoentzat! Iuuuuuuuu!

IMANOL agertzen da, karroa **ERDI**-betea. Korbata gabe, alkandora irekia darama.

DANI: (seriotuz) Aupa, Imanol!

IMANOL: Zu, hemen, berriz!

DANI: Bai, hau da nire bulegoa. (Imanolen karroari seinalatuz) Gaur ez al duzu beteko edo?

IMANOL: Azkenaldian horrela ari da gertatzen. Urduri nabil eta erosteko ere ez naiz kontzentratzen... (**DANI**ren korbata ukituz, harrituta) Horrelakoxea erosi nuen beste egunean...

DANI: Zuk ez al duzu denda garestietan erosten arropa? Hau hemengoa da!

IMANOL: (gezurretan) Nire langile batentzako oparia zenez, ez nuen gehiegi gastatu nahi. Horregatik erosi nion hemen.

DANI: Jakina. (izorratzeko) Zure oinetako kiratsa dut gogoan! Hori bai ahaztezina! Polikiroldegira elkarrekin joaten ginenean, zu aldatzen hastean...

IMANOL: (gogoraturaz) Ospa egiten zuten denek!... Zuk izan ezik.

DANI: Gazta usain hura! Bai... (onartuz, burumakur) Nik gustuko nuen. Oroitzapen samurrak...

IMANOL: Horrexegatik estimatzen zintudan nik!

DANI: Auzo berrira bizitzera joan zinenean, gauza bera egin al zuten auzokide berriek, ospa?!

IMANOL: Anbientadore gehiegi erabiltzen zuten auzo hartan. Guztion kiratsak ondo ezkutatzeko adina.

DANI: Arazo berbera al duzu orain?

IMANOL: Egunero galtzerdiak aldatuz konpondu naiz, egunero galtzerdi pareta zakarretara. Labadora kexatu egiten omen zen bestela... Gainera, galtzerdi fabrikako jabea izanik, ba arazorik ez... (*umil*) Orain berriz... Galtzerdiak... (*ez ausartu esaten*) Eeeee...

DANI: Zer demontre gertatzen zaie?

IMANOL: Hortxe zeok ba koxka! Ez dakit. Perfektuak fabrikatzen genituen. Aitonak aitari pasa zion enpresa eta nik aitarengandik jaso nuen, hil zelako, bai, bueno, bale. Badakizu, galtzerdiak edonork behar ditu: oinetan sartu eta akabo, jantzita dauzkazu. (*etsita*) Horrela izan da orain dela gutxi arte, eta horrela izan behar luke, izan behar luke!

DANI: Harriren bat zapata barruan?

IMANOL: Arroka puska sorbaldan: salmentak beheraino joan zaizkigu...

DANI: Aaa.

IMANOL: Eta karro gizarajo honek, nire betiko erosketa gaindosia, faltan botatzen du jada! Beti karro berbera hartzen baitut! Txiklea pegatu nion ezkerreko kurpilaren ondoan. Bai, hori da nire marka. Baina orain, ezin dut edonola dirua gastatu.

DANI: (*alarma likidoa hartuz*) Destinua petrala da nonbait, Imanol. Zereeeeeen... Tira, esaidazu, galtzerdien salmentak behera egin dizue, beraz... Zorrek gora egin dute?

IMANOL: (*burukomina, sekulakoa*) Urtebete daramat jada zenbaki gorriak estaltzen.

DANI: (*gozatuz*) Nik lagunduko dizut! Nik neuk, alarma-likidoaren asmatzaileak. (*alarma botilatxo bat hartu*) Honek zure hartzekodunak uxatuko ditu.

IMANOL: Sakelakoa itzali behar izaten dut haien deiak ez entzuteko, idazkaria kanporatu behar izan behar baitut.

DANI: Bai, hartzekodunak laister joango zaizkizu zure etxera, edo fabrian agertuko zaizkizu; diru eske.

IMANOL: Gaur ez dut karrorik beteko. Depresioak jota nago.

DANI: Hemen naukazu, lasai, animatzeko prest...Nire produktu honek arazoak desagertaraziko dizkizu. Begira, ALI deitu diot, alarma likidoa. Txalet adosatu guztien jabeak erosten dutenean, majikoa izango da niretzat!

IMANOL: Nik zergatik behar dut hori?

DANI: Alarma hau ikustezina da, likido ikustezin batez egina dago. Zure kasuan funtzionatzen du MODUS OPERANDIS A-moduan. Likidoa igurtzi behar duzu lapurtzea nahi ez duzun gauzetan. Lapurtu nahi dizunak usteko du gauza horrek ez daukala inolako babesik edo alarmarik, baina zure etxetik, edo fabrikatik edo dendatik irtetzean, FIUUUUU joka hasiko da, ulertzen?

IMANOL: Zuk bai buru argia.

DANI: Lapurrak jabeari lapurtutakoa bueltatu arte, alarma ez da isiltzen, pentsa ezazu. Gero, MODUS OPERANDIS B dago: hau sofistikatuagoa da, munduan diren lapurrentzat diseinatu dut. Denda edo banku batean lapurtzera sartu nahi baduzu, zure gorputzean bertan zabaltzen duzu alarma-likidoa. Eta nahiz eta bankurik seguruenak izan, segurtasun sistemarik marabillosa eta puntakoenak ez du nabaritu ere egingo zu barruan zaudenik, lapurtu nahi dituzun gauzak ALIkin igurtzitzen arituko zara, jakina. Irtetzerakoan alarmak ez dezan jo. Ulertzen?...

IMANOL: *(ulertu gabe)*Bai, bai.

DANI: Hala ere, modus operandis B esperimentatzeke daukat...

IMANOL: Eta nire kasuan...

DANI: *(alarma-botila mordoa hartuz)* Zuk asko behar dituzu. Etxeko eta fabrikako hormetan igurtzi beharko duzu likidoa. Horrela ezin izango dute inoiz EZER eraman zuk jakin gabe.

IMANOL: Baina, gure etxean badago alarma eta!

DANI: Noski, baina ez da nahikoa. Zure egoeran, alarma klasiko horrek ez dizu balio... Begira, 200 euro balio ditu botila bakoitzak: 200 bider hamar: bi mila Euro, adiskide!

IMANOL: Tarjeta onartuko?

DANI: Nola onartuko dizut tarjeta, hilabete bukaeran sekulako zuloa izango duzu eta!?

IMANOLEk Mila Euro ateratzen ditu karteratik eta DANiri ematen dizkio.

IMANOL: Beste mila euroak hurrengo astean emango dizkizut.

DANI: *(asko kostata)* Tira, tira... Ados... Zu zeu zarelako, ... Aspaldiko Imanol...

3. *Hilabete beranduago.*

IMANOLEk erosketa SASKIA hutsik darama. Janzkera: bakeroak, elastiko arrunta. DANI ikusten du ALI standaren atzean eta ezikusiarren plantak egiten ditu. Urruntzen hasten da, baina DANIK bizkor antzematen du.

DANI: *(standaren atzetik irten, pertxa bat eskuan hartu eta IMANOLI lepotik helduz)* Imanol!

IMANOLEk ez du tutik ere esaten, sorbaldak jasotzen ditu.

DANI: Gor-mutu-itsu plantak egiten zabilta. Ba, ez didazu lastimarik ematen... Non daude zor dizkidazun mila euroak? Bahituko zaitut ez badizkidazu laster ematen!

IMANOLEk erosketetako saskia, hutsa dagoena, erakusten dio. DANIK, ulertuz, pertxa askatzen du.

DANI: Joeeee!

IMANOLEk buruarekin baiezkoa egiten du.

DANI: Fabrika itxi al duzu jada?

IMANOL: Langile guztiak kanporatu behar izan ditut.

DANI: Horregatik ez zara azaldu hemen?

IMANOL: Azaldu azaldu, azaldu naiz... Baina kontu handiz, zure stand madarikatua saihestu dut okasio guztietan.

DANI: Estrategia desesperatua.

IMANOL: Estrategia imposiblea! *(aztoratuta)* Standa kokalekuz aldatzen duzu egunero eta! Zergatik ez zaude eskoba eta fregonen zokoan beti? Eeeee? Eeee?

DANI: Eguneko eskaintzak non, ni, han. Umeentzako pardelak eguneko mauka direla, hantxe ALI! Antxoadun olibak oparitzen dituztela, hantxe Ali!

IMANOL: Eskaintzak bazter guztietan daude eta! Lanparako jeinua bezalakoa izan beharko zenuke, bazter guztietan egon ahal izateko!

DANI: Nahiko nuke lanparako jeinua izan! Antxoadun oliba baten barruan nahiko nuke sartu, hain justu. Erosten eta jaten dituztenen sabeletan murgildu, barruak izorratzeko eta betirako kakalarria sortzeko, zigor eternoan (*umea bezala*) nire produktua ez erosteagatik! Adosatu guztien jabe horiek!

IMANOL: Beraz, salmenta gutxi eta plazer gutxi, ikusten dudanez...

DANI: Tira, saldu, saldu ditut... Gutxi batzuk... Ez pentsa, bezero potentzial ugari dauzkat! Orain, txinatarrak eta errusiarrak eta arabiarrek daude...

IMANOL: Aizu, etorri nintzen egun batean Vanessarenean ikusi zintudan. Eta HORREK IZORRATU egin ninduen! (*aztoratuta*) Nik kutxa horretan ordaintzen dut beti: Vanessaren kutxan, 7.KUTXA, ulertzen?! Sinatzen diot eta nire fansa da! (*emozionatuta*) Joan den egunean, azkenean, jakin nuen bere izena: Vanessa! Bularraren gainean daraman txarteltxoak ile luzeak estaltzen zion eta ni beti galdetzeko irrikan, baina inoiz ausartu ez. Azkenean, argi eta garbi irakur daiteke: Vanessa... Ilea moztu baitu. Nahiz eta orain, ile luze eta leun hura faltan botatzen diodan.

DANI: Nik 11.Kutxakoa perspektiban dudanean, pozik naiz, saldu ala ez saldu...

IMANOL: 11.Kutxa? Beltzaran betaurrekodun sinpatika bat?

DANI: (*moztuz*) Xabi Alonsoren antzeko tipo ilegorri bat da... Baina, zu, ez al zinen ezkondu?

IMANOL: Bakartxorekin. Bai. Seme-alaba pareta daukagu: Bakarne eta Imanoltxo. Bakartxok ez daki ezer Vanessari buruz. Bakartxok ezinduen kutxan ordaintzen du, hor beti ilara motzagoak omen daude. Ezinduaren plantak egiten ikusi beharko zenuke.

DANI: Vanessak ilegorriaren nondik norakoak kontatzen dizkit, haren laguna baita. Askotan kokatzen naiz Vanessaren ondoan. Baina Vanessaren nagusia ez dator bat nirekin eta debekatu egin dit haren ondo kokatzea.

IMANOL: Zergatik ez zara zuzenean 11.Kutxaren ondoan kokatzen??? Eta utzi Vanessa pake santuan...

DANI: Bai. Azkenean jarri nintzen bere ondoan, Vanessak aurkeztu gintuen... Baina, esan dezagun: harrera ez zen samurra izan.

BOZGORAILUETATIK ENTZUTEN DUGU: Vanessa bulegora, mesedez.

IMANOL: Joango al naiz ni ere?

DANIK *pertxarekin heltzen dio.*

DANI: Deitu zure Bakartxori eta ordaindu ditzala mila euroak.

IMANOL: *(larrituta)* Saskia ez badut betetzen, kobratu egingo dut.

DANI: Lehendabizi, niri ordaindu. Gero, lapurra bihurtu.

IMANOL: *(ameslari)* Vanessaren kutzara iristeko irrikitan nago, begirada samurra dauka...

DANI: Ordaindu egiten duzulako begiratzen zaitu samurki.

IMANOL: Gezurra. Iltaran aurrean edo atzean ditudanei ez die irribarrerik egiten.

DANI: Irribarre hori bere lana da.

IMANOL: *(erretxinduta)* Eta zuk, zer duzu 11.kutzakoarekin?

DANI: Nik? *(bere buruari)* Nahi bai...

IMANOL: *(aldatuz, zintzo)* Aitortuko dizut, Dani, zure alarma horrek funtzionatu digu. Ez zaigu inor sartu. Gure etxean goxo-goxo gaude, fabrika primeran zihoanean bezala. Alarma gehiago erosiko dizkizut. Segurtasun maximoaren bila gabilta Bakartxo eta biok. *(penoso)* Bizitza maila mantendu nahi dugu, kosta ala kosta. Bizitza "xume" bat izaten jarraitu nahi dugu.

DANI: Nirea bai bizitza xumea!... Ordea, anbizioz beteta nago, hori da beharrezkoa gauzak aurrera ateratzeko. Ez al zenuen hori ikasi Denborapasariales-en, demontre?

IMANOL: Anbizioa? Hitz hori ez da niretzat izan inoiz. Gauza da: orain, etxe barruan seguru sentitzen bagara ere, sufritu egiten dugu, zeren beti dago beldurra, inor etxean sartuko zaigun ala ez. Hori ez dute inongo eskolan erakusten. Beldurra.

DANI: *(serio, irakasle moduan)* Anbizioak beldurra ezabatzen du, Imanol... Aztertu beharko zenuke zure negozioren funtsa zertan datzan eta agian, hortik etorriko zaizu konponbidea.

IMANOL: *(oso kezkatuta, galduta)* Galtzerdi bat aztertu dut mila bider... Misterio gehiegi, dena da misterioa. Dirua egitearen misterioa... *(tematuz)* Gainera, nola demontre jakin hori, e, orain, horrenbeste urteren ondoren, aita eta aitona hilak daudenean? Sekretua eraman zuten hilobira!

DANI: *(berearekin)* Asmatu beste zerbait. Galtzerdi ezberdin bat.

IMANOLek harrituta begiratzen du. **DANI** mugitzen da **IMANOL**engana. Biak elkarrekin jarri, korridorearen aurrean.

DANI: *(tontokeriak botatzen, zerbait esateagatik)* Asmatu ezazu kilimadun galtzerdia. Munduko bakarti guztiok erosiko genituzke...

IMANOL: *(pentsakor)* Kilimadun galtzerdia...

DANI: *(aspertzen)* Zera, asmatu takoiezeko zapatetan erabiltzeko galtzerdi lodiak...

IMANOL: Ideia bat da, bai.

DANI: Mendiko galtzerdi bereziak sortu. Takoiezeko zapatetan jartzeko, sadomasoen zapatetan adibidez. Badakizu, hemen, mendiko galtzerdiak, barra barra salduko dituzu!

IMANOL: *(pentsakor)* Inkesta bat egin beharko dut... Mendizale sadomasoen esparrua...

DANIk alarma ugari sartzen dizkio saskian. **IMANOL**ek dirua ematen dio.

BOZGORAILUko AHOTSA: Alarma-standaren garaia agortu da. Utikan hemendik zure alarma madarikatuarekin, Dani jauna!

DANI: Hipermerkatuko arduradun malapartatua, nire lankide ohia. Inbidiaz gainezka dago, ni orain enpresaria naizelako!

IMANOL: *(nahastuta, pentsakor)* Mendi puntak/takoi puntak konexioa argi ikusten dut! Baina, galtzerdi lodiak?

Bat batean **DANI**ren gainera salto egiten du eta emandako dirua kentzen saiatzen da. Borroka egiten dute.

IMANOL: *(etsita)*Eman! *(umea bezala)* Vanessaren kutxatik pasa nahi dut, saskia leporaino beteta, ulertzen?? Eta ordaindu nahi dut!

Dirua ezin kendu dionez, standeko alarma guztiak sartzen ditu saskira eta badoa korrika.

4 .

-Hipermerkatuko argiak piztu-itzalian dabilta etengabe, amesgaizto baten moduan. *Bozgorailuetatik hots ulertezinak, hitz nahastuak entzuten dira.*

BOZGORAILUA: *...Kendu mesedez, zozketa, kotxe matrikula, kutxatik pasa, eskaintza berezia, diru-txartela sinatzen...*

Galtzerdi erraldoi bat azaltzen da, alegia galtzerdiz mozorrotutako pertsona bat. Ez dugu ikusten nor den.

DANI *agertzen da hutsik dagoen karro bat bultzatzen. Galtzerdia saihesten du. Galtzerdia **DANI**ren aurrean jartzen da, **DANI** geldiarazteko. **DANI**k goitik behera begiratzen du eta gero aurrera egin nahi du. Galtzerdia dantzan hasten da **DANI**ren inguruan.*

DANI: *Jodeeeeeee! Lasai-lasai atera naiz erosketak egitera. Zintzo-zintzo ordaindu nahi dut eta begira, zein giro arraroa...*

*Galtzerdia erabat pegatzen zaio **DANI**ri.*

DANI: *Ai ene! Infernua al da? Tentazio guztiak ordaindu ahal ditudan momentuan, deabrua agertuko, niri!...*

GALTZERDIAK **DANI** *eskuetatik heldu ondoren biribilean hasiko dira, umeen antzera.*

DANI: *Deabruaren laguna bihurtu naiz... Zer da hau??*

GALTZERDIAK **DANI** *askatzen du eta lurrera erortzen da. Galtzerdia orruka hasten zaio.*

DANI: *(ikaraz)* **IMANOL**en espektrua zara? Nola dirua ez nion bueltatu, bada, bueltan datorkit zigorra, ezta? Baina berak ederki izorratu ninduen!

Stock gabe utzi ninduen eta! Saltzeko ezer ez! Berak emandako diruaren erdiarekin erosketak egingo ditut, bestea, inbertitzeko. Ulertzen, espektro?

Galtzerdiak **DANI** heldu eta besarkatzen du, biak nigarrez hasi.

-**Hipermerkatuko argiztapen normala**. Galtzerdiak goiko zatia kentzen du, **IMANOL**en burua ikusten da.

IMANOL: Ba, bai: mamu edo espektro izan nahiko nuke.

DANI: Imanol Velez de Uriguen?

Belaunikatzen da IMANOLen oinak usaintzeko.

IMANOL: Zoritxarrez!

DANI: Zer arraio gertatzen zaizu?

IMANOL: Galtzerdiak saltzeko teknika berria. Stand ibiltaria hipermerkatuan. Gizon publizitarioa bihurtuta nago goitik behera!

DANI: Ez zaitut ezagutzen, Velez de Uriguen.

IMANOL: (*badoa*)Ez naiz harritzen, Dani.

DANI: (*umil*)Edonola ere, gustukoa zaitut.

IMANOL: (*lotsagorrituz*) Bakartxok itxura hontan ez nau gustuko...

DANI: Kamara pila baten aurrean gaude, hemen dena grabatzen dute, baina niri bost.

Heldu egiten dio sorbaldatik. Musu ematekotan da baina
IMANOLEK burua galtzerdiaz estaltzen du. Hitzegiten hasi,
IMANOLen orruak entzuten ditugu. Galtzerdiak ateratzen ditu
*barreketik: **DANI**ri para eskeiniz.*

DANI: Zeeer? Zertan zabilta? (*bere buruari*)Hori da eman nahi didan guztia...

IMANOL: Bi pare zuretzat, mila eurotan. Horrela pakean gaude.

DANI: Ezetz, pelikula honen bukaeran ez zara millonario egiten! (*haserretuz*)Gainera, stand ibiltariaren ideia niri lapurtu didazu! Hori nola ordaintzen da?

IMANOL: Ni haratago joan naiz ordea! Galtzerdia bera hezurmamitu dut! Hau da okurritu zaidana stockean geratzen zaizkigun galtzerdiak saltzeko. Bai, buruz buru saltzen, banan bana. Arreta pertsonala bezero bakoitzari. Zer erremedio...

DANI: Fabrika jada itxi duzue?

IMANOL: *(buruarekin baiezkoa)* Egia esan, produktua kartzela bihurtu zait.

DANI: A, ba hiru orduko vis a vis bat eskatzen dizut, hor barruan!

IMANOL: *(etsita)*. Etxea ere, Nanclares bat. Ezin dut jasan: han barruan sartuta nago, Bakartxorekin, denbora izoztu balitz bezala, horma guztiak zure alarmaz igurtzita. Akreedoreak (hartzekodunak) ilaran itxaroten. Aterik irekitzen ez diegunez, gauez saiatzan dira sartzen. Eta sartzen direnean zure alarmak jotzen du eta Bakartxok KANKA! sagardo botilarekin ematen die buruan...

DANI: Sagardorik baduzue behintzat...

IMANOL: Botila hutsak.

DANI: Zure kasuak nire alarma likidoaren arrakasta suposatzen du.

IMANOL: Fabrikan ere, galtzerdi stock guztia igurtzi genuen alarma likidoarekin, inork eraman ez zitzan, zorren truke edo. *(nigarrez)* Inor ez da fabrikan sartzen, ezertarako ez... Eta ehundaka galtzerdi fabrikan pilatuta, denak nire buruan bueltaka...

DANI *k begiak zabal-zabalik dauzka, hotzikarak gorputza zeharkatzen dio.*

IMANOL: Hemen pare bat edo bi saltzen ditudanean, sekulako Poza...

Atzera galtzerdi bihurtuta hasten da galtzerdi pareak eskaintzen alde batera eta bestera, kasik erotuta.

DANI: *(IMANOL geldiaraziz, burukoa kentzen dio)* Nahikoa da. Lasaitu... Txiste bat kontatu beharko dizut...

IMANOLek *bat batean NORBAIT ikusten du eta izuturik, galtzerdiaren burukoa jarri eta DANI musukatzen hasten da.*

DANI: Zer demontre?!

IMANOL: (*galtzerdia burutik kenduz*) Zera, barkatu Dani. Hortik pasa den horrekin sekulako zorretan dago fabrika. Ezin nau hemen deskubritu!...

DANI: Tira, joango natzaizu Bollycao batzuk erostera, ea lasaitzen zaren, beharko dituzu hemen egun osoa pasako baduzu... Azken finean, zure diruarekin ordainduko ditut...

IMANOL: Mila esker baina Vanessarekin geratu naiz meriendatzeko, bulegoan. Berak ekarriko ditu urdaiazpikozko bokatak, txanpain benjamin batzuk, gazta mokadutxoak eta beste zizka-mizka batzuk...

DANI: (*erabat jeloskor*) Seko erotu zara? Vanessa?!

IMANOL: Vanessa erotu nahi dut...

DANI: Eta Bakartxo?...

IMANOL: Bakartxo geratuko da. Dani, hemen barruan, zentzua hartzen diot bizitzari.

DANI: (*ahul*) Eta ni???

IMANOL: Estimutzen zaitut, lagun.

DANI: (*pentsatu ondoren*) Azkeneko txanda al dauka gaur Vanessak?

IMANOL: Bai, hamarretan bukatzen du.

DANI: (*inprobisatuz*) Ederki. Gelditzen zaidan alarma likidoarekin MODUS OPERANDIS B esperimentua burutuko dut. Esperimentu zientifiko baten pareko proba izango da. Gaur gauean bertan egingo dut eta beharko zaitut, monstruo!

IMANOL: Sentitzen dut, Dani. Zizka-mizken ondoren ez da ezer geratuko! Ulertzen? Ez Vanessa eta ez ni! Ez naiz egongo beste esperimentuetarako.

5.

BOZGORAILUETATIK (*ahots automatikoa, nahiko desatsegina*):
Jaun-andreak, bezero agurgarriak, jakinarazten dizuegu hamalau minutu geratzen zaizkizuela azken erosketak burutzeko ateak itxi baino lehen, ateak istera bait goaz, xoxak xahutzeko azken hamahiru minutuak beraz..

IMANOL, *GALTZERDIAREN BARRUAN*, *ohe baten gainean etzanda. Txortan balego bezala, hotsak eta mugimenduak. Azkenean, galtzerdiaren buruko zatia kentzen du.*

IMANOL: *Inoiz ez dut hain ongi pasa, Vanessa.*

BOZGORAILUA: *Dena bukatuko da hamar minutu barru..*

IMANOL: *Egingo al dugu berriro, Vane? Agintzen dizut, hamar minutuak oso osorik iraungo ditut, eutsi eta eutsi..*

IMANOL: *(zutituz) Non zaude? (galtzerdiari erreparatuz) Soooooos! (galtzerdiaren barrendik galtzerdi pareak atera eta ohe gainera bota, erotuta) Jopeeee! Arratsalde osoan ez dut bat ere saldu! Vanessarekin ametsetan nengoen, bero-bero! Uf!*

BOZGORAILUA: *Bederatzi minutu potolo geratzen dira..*

IMANOL: *(ohartuz) Baina, benetan, Vanessarekin zita nuen bulegoan eta!! Nola arraio geratu naiz hemen lotan?... (etsita) Agian bederatzi minututan lau pare saldu ditzaket! Bi pare bi minutuero, 60 segundu soberan..*

BOZGORAILUA: *Zortzigarren minutura heldu gara, zara, zarete...*

IMANOL: *Pare bat salduta, pozik nengoke... (jantziari begiratzuz) Vanessari ni bezalakoak gustatuko al zaizkio ... (aldatuz) Tira, zergatik ez? Edozertarako gai sentitzen naiz... Zazpi minututan...*

Galtzerditik ateratzen da presaka, salto lurrera.

BOZGORAILUA: *Eta iada 420 segundu besterik ez...*

IMANOL: *Zezenari adarretatik helduko diot! Utikan galtzerdi madarikatuak eta utikan konprak!*

BOZGORAILUA: *Ez da ezergatik, baina sei minutu eskas dauzkagu guztiok hemendik hanka egin baino lehen...*

*ARGIAK PIZTU-ITZALIAN HASI. **DANI** agertzen da.*

DANI: *Galtzerdia utziko al didazu?*

IMANOL: *(kasorik egin gabe) Bost minutu Vanessa aurkitzeko eta berarekin munduaren ipurdiraino joateko, agur betirako, Dani.*

*Badoa. **DANIK** besotik heltzen dio, **IMANOL** ez dadin joan.*

BOZGORAILUA: *BOST eta OSPA! BOST eta OSPA!*

DANI: *Zure kolaborazioa behar dut! Usaitu usaitu! Alarma likidoarekin igurtzi ditut nire arropak. Gaua hemen pasako dut! Hemengo alarmek ez badute usaitu ere egiten ni barruan nagoela, alarma likidoaren B modalitatea patentatuko dut eta ken daitezela erditik Bill Gates eta beste millonario konpainia!*

IMANOL: *(bozgorailuak seinalatuz, joan nahian) Lau, lau... Esa Vane! Esa Vane, ye, ye!*

BOZGORAILUA: *Pausoen abiada bizkortu, mesedez, pasillo batzuk kutxetatik urrun daude, agian lau minutu baino gehiago emango dituzu kutxara iristeko, beraz zoaz hegan, hegan ordaintzera!*

IMANOL: *Aizu, zer arraiotarako behar duzu galtzerdi erraldoi hori?*

DANI: *Galtzerdiaren barruan sartuko naiz, gero ohean etzango. Nik lehenago hortxe utzi zaitudan bezala.*

Zaindarien usteko dute publizitateko galtzerdia naizela. Eta nik nire proba burutuko dut inolako oztoporik gabe.

IMANOL: Saldu egiten dizut. Mila eurotan.

DANI: Ados. Patentea lortzen dudanean ordainduko dizut.

IMANOL: *(presaka, joanez)* Vaneeessaaa!!!

DANIK *berriro eusten du IMANOL, ez dadin joan.*

BOZGORAILUA: *Hiru minutu eta ziurtatuko duzu erosi duzun guztia zein zoragarria den!*

DANI: Patentatzeko testigantza bat behar dut. B Modalitatearen arrakastaren lekukoa zu izan behar duzu.

IMANOL: *(haserretuz)* Nirekin dena nahi duzu, baina ez da posible.

DANI: Bai, guztia niretzat nahi duen horietakoa naiz.

IMANOL: Ni halakoxea nintzen.

BOZGORAILUA: *Hau ez da aterpe atomikoa! Bi minutu eta denok etxera!*

IMANOL: ... Ez dizut barkatzen! Pozoitu egin nauzu eta ohean botata utzi, ez? Zeren lo hartu dut, sekulako ametsak izan ditut Vanessarekin, hori bai. Hala ere, errealitatean ez naiz berarekin egon. Txanpain benjamina eta zizka-mizkak, auskalo norekin hartu dituen...

BOZGORAILUA: *PUUUUUUUUUUUUN! Zerooo! Hemen igarotako momentu ahaztezinak eramanez saskian. Biharko irekitze ordutegia buruan, gastatutakoa bihotzean eta egon prest erositakoa berriro erosteko behin eta berriz, behin eta berriz, behin eta berriz...*

ARGIAK ITZALI DIRA. **DANIK IMANOLI** besotik eusten dio.

DANI: Esperientzia berriak izateko prest egon behar duzu.

IMANOL: Ni banoa, Imanol. Itxi dute jada. Pentsatuko dute lapurra naizela. Sentitzen dut.

DANI: Esaten badizut Vanessak esan didala bulegoan itxarongo zaituela... Nirekin geratuko zara?

IMANOL: *(sinetsi nahian)* Zergatik ez didazu lehenago esan!

DANI: Orain esaten dizut! Vanessa zain daukazu, bulegoan.

ZINPEKO ZAINDARIEN PAUSOAK ENTZUTEN DIRA.

IMANOL: Seguratak! Seguratak badatozte!

DANI: Bizkor, galtzerdira! Biok!

*Galtzerdian sartzen saiatzen dira biak batera. Azkenean, nola hala, lortzen dute. **DANIK IMANOL** besarkatzen du.*

IMANOL: Zertan, Dani?

*ZAINDARIEN PAUSOAK URRUNDU EGIN DIRA. Buruak ateratzen dituzte galtzerdi erraldoietik. **DANI IMANOL** musukatzen hasi.*

IMANOL: Hi, nik lehenago disimulatzeko egin diat.

***DANIK** ahoa tapatzen dio.*

DANI: Langileak etxera joan dira: guztiak. Vanessa bere senargaiarekin. Ulertzen? Burbuilak senargaiarekin dauzka.

IMANOL: (*galtzerditik irten egiten da, zapuztuta*) Ez al zenuen alarma likidoa esperimintatu behar?

DANI: Hori zen helburuetako bat, bai... Baina aldi berean, gure gaua da, Imanol.

IMANOL: Ez al dira seguratak konturatu hemen gaudela? Nik ez dut gorputza igurtzi zure likidoarekin eta dendako alarmak ez du jo..

DANI: Seguratak bulegoan daude dagoeneko, barrabilak masajeatzen edo bollycaoak jaten edo Vanessarekin daude agian...

IMANOL: Lan idilikoa iruditzen zait. Nola demontre irtengo naiz hemendik orain, seguratak ohartu gabe? Abandonatu egingo zaitut. Zurekin topo egin nuenetik, gauzak ezin okerrago joan zaizkit. Ez dakit zergatik fidatu naizen zurekin.

DANI: (*Galtzerditik atera korrika*) Gauzak diferente joan zaizkizu, besterik ez... Mesedez, ez zaitez oraindik joan... Oso larri nago eta ez dakit nola egin.

IMANOL: Zer esan nahi duzu?

DANI: Zera, komunera joateko gogoia daukat. Baina komunera joateko zaindarien bulegoaren aurretik pasa behar da.

IMANOL: Jakina, eta ikusiko zaituzte eta zure plana zapuztuko duzu. Agian hori da hoberena.

DANI alde guztietara begiratzen du. Azkenean lorontzien pasilloan lorontzi handi bat ikusten du.

DANI: Badakit!

DANI lorontzira gerturatzen da; bertan pixa egiten du. *HIPERMERKATUKO ALARMA JOKA HASTEN DA. DANIK eta IMANOLEK* elkarri begiratzen diote, harrituta, ulertu ezinda.

DANI: (ohartuz)Nola ez zitzaidan okurritu! Ez dut edan! (*IMANOL* modu desesperatuan astinduz) Ez dut edan! Nire alarma likidoa ez dut edan! Pixan ez zegoen alarma arrastorik!

IMANOL: Enpresariales, zero patatero.

ALARMAK BEHIN ETA BERRIZ JOTZEN DU, ZINPEKO ZAINDARIEN PAUSOAK BADATOZ.

6. Hipermerkatuko aparkalekuan. Bi hilabete beranduago.

DANI mafioso italiar klasiko baten antzera jantzita: traje beltza, korbata beltz estua, eguzkitakoak. Korbata estutzen du. Paltrikatik txanpon ugari atera, bat aukeratu, karroan sartu. Karroa hartu eta bultza, oso harro. Badoa barrura.

IMANOL agertzen da txandala jantzita.

DANI: (ironiaz baina poztuz)Hara, nire munstruoa.

IMANOL: (harrituta, Daniren itxuragatik)Hara, nire munstruoa.

DANI: Zer, aspaldiko? Gaur ez saski eta ez karro.

IMANOL: Ez nator eroatera.

DANI: Saskirako bakarrik daukazu orduan.

IMANOL: Ez pentsa... (karroa seinalatuz)Eta zu?

DANI: Negozioa ondo doakit.

IMANOL: Enpresarien Nobel Saria emango dizue akaso.

DANI: Enpresarien nobela bat idatziko dut laister...

IMANOL: Lortu al zenuen alarma patentatzea???

DANI: Tira... Patentatu, patentatu... Nola esan, zehazki, patentatzea ez da hitza. Pagotxa lortu dut. Pagotxa.

IMANOL: Salmenta leku ugari duzu orain?

DANI: Ez nago stand madarikatu baten beharrean... Ez al nauzu ikusten? (*itxura seinalatu*) Barrura noa, soilik erostera. Eta ordaintzera... (*belarrira*) Bezeroekin daukadan bilera baterako zizka mizkak erosi nahi ditut...

IMANOL: (*zorrotz*) Ez didazu inolako inbidiarik ematen.

Footing egiten hasten da DANIren inguruan.

DANI: Kabiarrak eta guzti erosiko dut! Kabiartzaleak baitira nire bezeroak!

IMANOL: Nire fabrikaren garairik onenean ere ez nion horrelako traturik eman bezero bakar bati.

DANI: Hala joan zitzazun!... Niri, ordea, enpresarialeseko unibertsitatetik deituko didate laister, irakasle gisa aritzeko.

IMANOL: Mundu guztiko etxe adosatuen jabeek zure alarma ziztrin hori erosi al dute, edo zer?

DANI: (*interesgarriarena egiten*) Errusiarrek dira ene bezeroak, ulertzen? Beste batzuk errumaniarrak, bulgariarrak. Eta gero hemengoak daude, jakina.

IMANOL: (*inbidiaz*) Ikusten dut, zure negozioaren funtsa aurkitu duzu.

DANI: (*gurasokeriaz, harro*) Alarmaren ideia eduki nuenetik, jo ta fuego aritu naiz, hazia ereiten, eguraldi txarra zenean babesten, eguraldi onarekin eguzkitan jartzen, lehenengo uzta oso txarra izan zen, badakizu, baina, orduan, erregutu eta, denetik egin nuen, denetik...

IMANOL: Lagunak lapurtu, erasotu eta ia bortxatu.

DANI: Eta azkenean, horrenbeste erein eta erein, AZKENEAN, lortu dut merkatuan nire baratzatxoa.

IMANOL: (*harro, jakitun*) Baratza internazionala izango duzu baina produktu bakarrekoa. Monokultibo deitzen zaio horri.

Arriskua dakar monokultiboak, zeren gaizki doanean, dena doa gaizki. Eta zuri horixe gertatuko zaizu.

DANI: *(haserre)* Monokultibo? *(harro)* Jakin ezazu, Europako lapurrik espezializatuenak dauzkat itxaron zerrendan. Denak nahi dute nire alarma likidoa! Lapur guztiek! Horiek dira nire bezeroak. Eta mota guztietako lapurrak dira.

IMANOL: Aaaaa. Beti metaliko ordaintzen dutenak, e?

DANI: Hori da abantailarik handiena, bai. Dirua sudurretik aterako zait egunen batean.

IMANOL: Ez didazu inbidiarik ematen. Sudurretik mukiak ateratzea gustatzen zait, gero pilotatxoak egin eta zu bezalako lagunei aurpegira botatzeko.

DANI: Bezero batek horrelakorik egiten badit, edota ordaintzen ezbadute... Prest nago! *(txaketa zabaldu, gerrian daraman pistola erakutsi)* Muki gabe uzten ditut.

IMANOL: Mila esker, DANI. Lan berria daukat azkenean, eta harro nago.

Joan egiten da. DANIk harrituta begiratzen du eta badoa hipermerkatu barrura.

-HIPERMERKATUAN:

IMANOL zinpeko zaindariaren uniformeaz jantzita dabil, segurata bat da. Soldadu moduan pasiatzen da, desfilatzen balego bezala, irribarrea ahoan, guztiak agurtzen ditu.

IMANOL: *(hortz artean)* POZIK NAGOOOO, lana daukat, lana daukat! Pozik nagooo. Iepaa.

DANI agertzen da eta entzun egiten dio. **DANIk** karroa beteta darama: egurrak, sarrailak, hesi metalikoa eta halakoak daramatza.

DANI: King Kongek horixe esan zuen hirian sartu zenean. Pozik nago. Eta jarraian hiriko etxe guztiak suntsitu zituen, pozez zorutzen.

IMANOL: Armairuan dauzkadan korbatadun traje guztiak saltzen dizkizut.

DANI: Tira, segurata. Misterio gutxi dauka zure lan berri honek.

IMANOL: (*automata moduan*) Pozik nago! (*pentsakor*) Badakizu nola hasi zen guztia? Aitonarekin! Aitonak txapel fabrika bat ireki zuen, baina hain forma arraroko txapelak atera zitzaizkien, azkenean galtzerdi forma hartu zutela eta galtzerdi-fabrika bihurtu zuten. Mirariak gertatzen ziren garai hartan. Eta sekulako negozioa egin zuen, aitak jarraitu zion gero. Nire txanda iristean... Ni zeharo aspertzen nintzen, hura ez zen niretzako.

DANI: (*samur*) Lasai, Imanol. Ulergarria da. Baina fabrika hondora eramateraino...Ez dakit.

IMANOL: Seguraten bulegoan porno filmeak ikusten ditut. Ez dago arriskurik.

DANI: (*bere buruari*)Tira, horrela hasten da dena... Pasako dizkizut PORNO TOP batzuk, Bulgariatik ekartzen dizkidate, han hemen ez dagoena dago...

IMANOL: (*ez entzunarena egiten, karroa begiratzuz, kuxkuxeatzuz*)Obrak etxean edo? Pozik etxe berrian?

DANI: (*urduri*)Ez pentsa! Hesiz inguratuko dut jardina. Lehendabizi egurra jarriko dut, gero hesia eta gero... Kamarak sarreran eta bazterretan! Dena kontrolatua dudanean, orduan bai, orduan pozik eta lasai egingo dut lo! Ordurarte, begiak istea kostatuko zait.

IMANOL: Ondotxo ezagutzen dut hori zer den.

DANI: Dena kontrolatua izan behar dut.

IMANOL: Horixe. Hemen lanean ere, dena kontrolpean izan behar dut nik. Hala ere, noizean behin lortzen dut lasai lo egitea.

DANI: Ahaztu dut jada zer den hori!

IMANOL: (*nostalgiaz*) Norbaitekin lokartzea ere, atsegina zen... Edo norbaitekin egonda, EZ lo hartzea...

DANI: (*kutsatuta, nostalgiaz*) Gogoan dut, hemen, galtzerdiaren barruan, zure ondoan itsatsita egon nintzaizunean.

IMANOL: Ez ginen ezertan aritu!

DANI: Nire burua aritu zen, bada. Buruan bueltaka eta bueltaka ideia bera!

IMANOL: ...Zure pixaren erruagatik kalabozoan pasa genuen gau hartan nire buruan Vanessa besterik ez neukan. Berarekin neukan zita zapuztu zenidan... Eta Bakartxo kalabozora bisitan etorri zitzaidanean, Vanessa balitz bezala tratatu nuen. Hasi nintzaion arropa kentzen, musukatzen... Larrutan egin genuen aspaldian egiten ez genuen bezala.

DANI: Eta ni ondoko zeldan Bakartxoren tokian, esan nahi dut, Vanessaren tokian nintzela irudikatzen aritu nintzen. Laukote ederra osatu genuen!

IMANOL: Nik behintzat, primeran pasa nuen... Esan nahi dut, GENUEN.

DANI: ...Beraz, eeee, hemen eta orain, Vanessarekin aukera ugari sortuko zaizkizu, ez?

IMANOL: Tira, ez pentsa. Bakartxo 11.Kutxan da. Egun osoa ematen du hemen barruan sartuta, *lanean*, ulertzen? Eta oraingorik ez diote kutxa bat destinatu, beraz kutxaz kutxa dabil.

DANI: Lasai... Hemengo kamara erdiak kadukatuak daude, esan nizun; Vanessarekin aldageletan grabatzen bazaituzte, zaila izango da bereiztea nor den nor.

IMANOL: Vanessak kale egiten badit... Arrandegikoa ezagutu dut gaur. Sirena bat dirudi! Agian bera da nire bizitzako arraia...

DANI: (*belaunikatuz*) Imanol, eskatu trasladoa Marbellako hipermerkatura, ni han ibiliko naiz.

AMAIERA

EZIN IHESI

Egilea: Yurre Ugarte